

## **KOSTUEN EGITURA:**

Gure proiektua aurrera atera ahal izateko, emaitza onak eskuratzeko, gure produktua ekoiztu ahal izateko eta merkatura bideratzeko behar izango diren kostu guztiak definitu beharko dira. Hori lortu ahal izateko, kostu guztiak elkartu beharko dira, eta geroago, kostuen egitura sortu behar da. Modu horretan, gure proiektua posible izateko behar izango diren kostu guztiak agertuko dira.

Kostuen egitura ondasun ezberdinak produzitzeko utzi behar dugun diru kantitatearen arabera ordenatuko dugu lehen zatia: lehenik, edalontzi bat produzitzeko beharko dugun diru kantitate totala 0.15€-koa izango da. Bigarrenik, plater bat produzitu ahal izateko 0.1€ gastatuko ditugu. Hirugarrenik, sardeska bat sortu ahal izateko beharko dugun diru kantitate totala 0.05€-koa izango da. Laugarrenik, laban bakoitza produzitzeko 0.05€ jarri beharko ditugu. Bostgarrenik, goilar bakar bat sortu ahal izateko beharko dugun diru kantitate totala 0.05€-koa izango da. Azkenik, botila bat produzitzeko jarri beharko dugun diru kantitate totala 0.3€-koa izango da, eta gainera, botilak urez beteta egongo dira (bezoya ura).

Gure produzku guztiak 3 pakete mota ezberdinetan banatuko ditugu bezeroentzat errazagoa izateko erosteko momentuan. Pakete haiek tamainaren arabera banatuak egongo dira: lehenengo paketea “pakete txikia”-ren izena hartuko du, bigarren paketea “pakete ertaina” deiturikoa izango da, eta azkenik, hirugarren paketea “pakete handia” edo “pakete familiarra”. Pakete txikiaren barne produktu bakoitzeko 5 ondasun egongo dira (5 edalontzi, 5 plater, 5 sardeska, 5 laban, 5 goilara eta 5 botila). Pakete ertainaren barnean produktu bakoitzeko 20 ondasun egongo dira (20 edalontzi, 20 plater, 20 sardeska, 20 labana, 20 goilara, eta 20 botila). Azkenik, pakete handiaren edo pakete familiarren barne produktu bakoitzeko 40 ondasun egongo dira (40 edalontzi, 40 plater, 40 sardeska, 40 labana, 40 goilara, eta 40 botila). Pakete bakoitzak prezio ezberdin bat izango du eta prezio hori paketearen barnean dauden ondasun kantitatearen arabera izango da: pakete txikiaren prezioa 8€-koa izango da, pakete ertainaren prezioa 12€-koa izango da, eta azkenik, pakete handiaren edo familiarren prezioa 18€-koa izango da.

Horrez gain, ondasun mota bakoitzeko 5eko paketeak salduko ditugu, pakete mota haiek 3€ balioko dute.

**PAKETE TXIKIA: 8€**

**PAKETE ERTAINA: 12€**

**PAKETE HANDIA: 18€**

